

Gipuzkoako Itxaropen Telefonoaren memoria



AURKIBIDEA

SARRERA.....	2
1. GIT-AREN MUGARRI GARRANTZITSUENAK	3
2. NORTZUK GARA	4
Misioa	4
3. GIT-AREN ZERBITZUAK GURE GIZARTEAN	6
3.1 BADABIDEBAT. Gipuzkoako gazteei laguntza emozionala emateko zerbitzua..	7
4.GIT-AREN BARNE FUNTZIONAMENDUAREKIN LOTUTAKO JARDUERAK	10
5. HERRITARREI ZUZENDUTAKO JARDUERAK	12
6. GIT-aren DIFUSIOA	21
7. GITAK HAINBAT ERAKUNDE PUBLIKOREKIN DITUEN BETEBEHAR ETA KONPROMISOEI LOTUTAKO TOPAKETA ETA BILERETAN PARTE HARTZEA	22
8. BESTE BARNE JARDUERA BATZUK	22
9. GIT-AREN ZERBITZUAK BALORATZEKO ERABILITAKO EBALUAZIO ADIERAZLEEI BURUZKO DATUAK.....	23
11. ESKER ONAK.....	25

SARRERA

2021a proiektu berrien eta begirada berrien urtea izan da, eta Gipuzkoako gizarteari gure aletxo ematen jarraitzekoa.

Gipuzkoako gazteriarentzako BabiBideBat zerbitzu berria jarri dugu abian. Izenak berak dioen bezala, Gipuzkoako gazteriarentzako bide bat dago. Badakigu gazteek entzunak sentitu nahi direla eta beren bidea bilatzeko laguntza behar dutela, baina, gainera, ez dugu ahaztu behar beraiek direla beren istorioetako protagonistak. Zerbitzu honetan duten ahotsak garrantzi handiagoa du, zerbitzu horren bidea markatuko dutenak izango baitira, zerbitzu dinamikoa eta gazteen beharretara egokituko dena.

Zerbitzu berri honek ez du eragotzi gure 900 840 845 entzuteko ildoan lanean jarraitzea, inoiz baino biziago egon baita, laguntza emozionala eskainiz beren minarekin eta sufrimendurekin deitu diguten pertsona guztiei, bakardadea izan da, beste behin, gehien entzun den gaia.

Halaber, 2021 beste erakundeekiko lankidetzeta eta sareko lana indartzen jarraitu dugun urtea izan da. Gizarte kohesionatu eta solidarioa sustatu nahi dugun antzeko balioak eta asmoak dituzten erakundeen arteko sareak sortzeak duen potentzial eraldatzailean sendo sinesten dugu; gure eginkizuna ulertzeko modu horrek sinergiak sortzea eta modu berezian lortzea ezinezkoa litzatekeen helburuak lortzea ahalbidetzen du. Lan egiteko, taldean lan egiteko eta harremanak izateko modu hori hainbat lankidetzeta-hitzarmen sinatuz formalizatu dugu.

1. GIT-AREN MUGARRI GARRANTZITSUENAK

<p>1987 Gipuzkoako Itxaropen Telefonoa sortzen da Donostian</p>	<p>1997 Hitzarmena sinatzen da Gipuzkoako Caritasekin, egoitza Arrasate kalera aldatzeko</p>	<p>2006 Zuzendaritza Batzordearen txanda eta zerbitzuaren zuzendaritza</p>
<p>2006 Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzarmena sinatzen da, zerbitzuaren barne-funtzionamenduaren egitura bermatzeko</p>	<p>2007 Herritarrentzako doako linea ezartzen da 900 840 845</p>	<p>2007 Eusko Jaurlaritzak onura publikoko zerbitzu gisa aitortzen du.</p>
<p>2011 Gipuzkoako Foru Aldundiak Boluntariotzaren Saria eman digu</p>	<p>2012 TEG Zilarrezko Ezteiak ospatzen ditu eta 50.000 dei jaso ditu.</p>	<p>2014 Donostiako Udalaren Hiritar Merezimenduaren Domina</p>
<p>2014 Eusko Jaurlaritzak instalaziorako eta funtzionamendurako osasun-baimena ematea</p>	<p>2015 Donostiako Udaleko Gizarte Kontseiluko kidea</p>	<p>2017 TEGren XXX. urteurrena.</p>
<p>2019 Donostiako Udaleko Gizarte Ekintzako Kontseilu Sektorialean sartzea</p>	<p>2021 BadaBideBat, Gipuzkoako gazteei laguntza emozionala emateko zerbitzu berria</p>	

2. NORTZUK GARA

Misioa

GIT 1987an sortu zen, irabazi-asmorik gabeko elkarte gisa, eta haren **MISIOA** Gipuzkoan bakarrik sentitzen edo sufrimendu-egoera batean dagoen edozein herritarri laguntzea da. Hitz hauekin azaldu zen:

“Gipuzkoan ez dadila inor ere bakarrik sentitu bere Itxaropena kinka larrian jarriko duen arazo baten aurrean”

GITen pertsonen gaineko **ikuspegi humanista** dugu oinarri; horregatik, pertsonen gaitasunetan sinesten dugu, hala hazteko nola norberaren gatazkei era positiboan aurre egiteko.

Gabeziei aurre egiteko, beraz, pertsonen ahalmenak jartzen ditugu erdigunean —aldaketarako motor gisa edo nor bere buruari eusteko tresna gisa—, hondatze-prozesuak larritu ez daitezzen, edota, kasurik txarrenetan, gizarte-bazterketarik gerta ez dadin.

Pertsonen gaitasunak handitzea bilatzen dugu, noiz eta pertsona horiek “bahituta” bizi direnean beren arazoan, bakardade-sentimenduaren edota isolamendu sozialaren mende, egoera horiek blokeatuta eta geldiarazita.

Pertsonarengan jartzen dugu arreta, gizakia osatzen duten alderdi guztietan (fisikoa, ekonomikoa, soziala, psikologikoa eta espirituala), eta analizatzen dugu nolako eragina duen pertsonaren gatazka edo arazoak alderdi horietan guztietan (begirada holistikoa). Batez ere, aztertzen dugu pertsonak nola bizi izaten duen arazoa; pertsona bere osotasunean hartzen dugu aintzat (sentimenduak, balioak...). **IZAN ERE**, pertsonak, beste ezeren gainera, sentitu behar baitu besteok guztiz ulertzen dugula; lasaitasun osoa behar du, bai eta erabateko abegia ere.

Jarduteko, **Laguntza-harremanaren Eredua** baliatzen dugu, zeinak bere baitan hartzen dituen presentzia, komunikazio zuzena eta zintzoa, enpatia, laguntza sufrimenduan, arazoak erraztea eta sostengua (azken batean, **pertsonen zaintzarako** funtsezko kontuak).

Gizakiei buruzko gure ikuspegia eta gure jarduketan ikuspegia guztiz bat datoz Pertsonarengan Ardazturiko Arretaren (PAA) ikuspegiarekin. Izan ere, guk hainbat printzipio partekatzen ditugu **Pertsonarengan Ardazturiko Arretarekin (PAA)**: pertsonen duintasuna, norberaren berezitasunekiko begirunea, norberaren erabakien, bizimoduaren eta balioen aldeko begirunea, edota gaitasunen inguruko ikuspegia.

Labur esanda, pertsonari buruzko ikuspegi global eta humanista darabilgu; horregatik, geure zerbitzuetan lan-praktika egokiak txertatzen ditugu, esperientzian, Pertsonarengan Ardazturiko Arretan edota Zaintzaren Etikan (erantzunkidetasuna eta elkartasuna) oinarrituta.

Guri deituz gero, edozein pertsona artatzen dugu, inor bereizi gabe haren sexua, adina, arraza, sinesmena, jatorria, dibertsitate funtzionala edo sexuala, estatus soziala edota egoera ekonomikoa direla eta.

Halaber, konfiantza osoa dugu pertsonak badituztela behar besteko gaitasunak beren baliabideak martxan jartzeko, beren ongizatearen edo bizi-kalitatearen aurkako egoerei aurre egiteko garaian.

Gure IKUSPEGIAK zera bilatzen du:

Erreferentziazko erakundea izatea Gipuzkoan, nahi gabeko bakardadearen inguruan, babes falta, hauskortasuna edo zaugarritasuna pairatzen dituzten pertsonentzat.

Boluntario-talde ona edukitzea; guk behar bezala zaintzen dugu talde hori, eta berak asebetetze-maila bikaina erakusten du gure entitateaz eta jasotzen duen prestakuntzaz. Halaber, konpetentzia emozionalak eta jarrerazkoak garatzen ditu, kalitatez eta arretaz artatzeko gure zerbitzuen eskatzaile oro.

Gure xedea da elkarte eraginkorra izatea, asebetetze-maila ona jasoko duena artatzen duen jendearengandik.

Entitate berritzailea izatea, helburuei, lan-prozesuei eta lan-metodologiari dagokienez.

Gure entitatea beste entitate batzuekin batera aritzea lanean, eta praktikan jartzea elkarrekikotasun- eta lankidetzaren printzipioak.

Erakunde konprometitua izatea Gipuzkoaren erronka sozialekin.

Hauexek dira gure **BALIO** funtsezkoenak:

- Elkartasuna
- Pertsonen eta harremanen zaintza
- Tratu- eta aukera-berdintasuna
- Pertsonenganako konfiantza
- Esfortzua
- Talde-lana eta sareko lana

Hauxe da gure **antolaketa-egitura**:

ZUZENDARITZA BATZORDEA

(Lehendakaria, lehendakariordea, diruzaina, idazkaria eta 6 bokalak)

ZUZENDARITZA TALDEA ETA TALDE TEKNIKOA

(Zuzendaria, koordinatzailea eta Badabidebat-eko teknikaria)

ENTZUKETA BOLUNTARIO TALDEA

(27 pertsona)

BORONDATEZKO EKIPO PSIKOLOGIKOA

(Psikologiako 3 profesional)

3. GIT-AREN ZERBITZUAK GURE GIZARTEAN

Gure zerbitzuak ondorengo baloreetan oinarritzen dira:

doakotasuna, anonimotasuna, konfidentzialtasuna, aukera berdintasuna (jaiotza, arraza, sexua, erlijioa edo beste edozein baldintza personal edo social alde batera utzita)

GIT-etik biztanleriari eskeintzen dizkiogun zerbitzuak honakoak dira:

Doako arreta telefonikoa 900 840 845

Urteko 365 egunetan. Entzuketa taldeak eginiko arreta.

E-posta bidezko arreta

telesgi@telesgi.org bidez

Aholkularitza psikologikoa eta Telefono bidezko jarraipenak

Profesionalek eskainia (psikologiako edo gizarte lan arlokoak).

Mugikortasun zailtasunak, arazo ekonomikoak, familia kontziliazioa, anonimatasonari eusteko beharra edo hala eskatzen duen beste edozein baldintza bizitzen duten pertonei zuzendua

Lan horretarako, eta arretaren kalitatea bermatzeko, GIT-aren zerbitzu guztiek entzute aktiboa erabiltzen dute.

3.1 BADABIDEBAT. Gipuzkoako gazteei laguntza emozionala emateko zerbitzua¹

Ekimen honen jatorria GITaren zuzendaritza-taldeak 2019an egin zuen hausnarketa bat da. Hausnarketa bat egin zen Gipuzkoako Itxaropenaren telefonoan jasotako deiei buruz, eta azterketa bat egin zen, non ikusi genuen urtetik urtera gazteen deiak nabarmen ugartu zirela.

2020an hausnarketa-talde batzuk antolatu genituen gazteekin, gazteentzako laguntza emozionalako zerbitzu bat beharrezkoa ote zen aztertzeko. Jasotako erantzunak bat zetozen, uste genuena berretiz, zerbitzu, izen, logotipo eta bere idiosinkrasia propioaz pentsatzen hasi ginen.

Programa berri hau 2021eko ekainaren 14an jarri zen martxan, Gipuzkoako gazteei modu emozionalean laguntzeko helburuarekin.



The poster for Badabidebat is a vertical graphic with a red and blue background. At the top, it features the logo 'BADABIDEBAT' with a QR code to its right. Below the logo, the text reads 'Gipuzkoako gazteen emozionalak erretzen' and 'Apoyo emocional a la juventud de Gipuzkoa'. The main headline asks 'NORBAITEK ENTZUTEA BEHAR DUZU?' followed by '¿NECESITAS QUE ALGUIEN TE ESCUCHE?'. There are four columns of text describing the service: 'ANÓNIMO Y GRATUITO', 'ANÓNIMO Y GRATUITO', 'TÚ DECIDES', and 'TÚ DECIDES'. At the bottom, there are icons for 'TELÉFONO GRATUITO', 'WHATSAPP', 'CHAT ONLINE', and 'E-MAIL', along with their respective contact information. Logos for 'kutxa' and other partners are at the very bottom.

Zerbitzua sakonago ezagutu ahal izateko: www.badabidebat.eus, gazteen ohiko hedapen-kanalak eta Instagram eta Twitter bezalako sare sozialak ditugu, nahiz eta ez ditugun alde batera uzten ohiko metodoak, hala nola prentsa, irrati eta telebista komunikabideak, bai eta paperezko publizitate-materialak ere, gazteak harremanetan jartzen diren guneetan zabalduko ditugunak (unibertsitateak, Lanbide Heziketako zentroak, liburutegiak, etab.).

¹ Badabidebat zerbitzuak memoria eta ebaluazio propio bat izango ditu.

2021ean abian jarri aurretik, aurrez aurreko bilerak edo bilera telematikoak izan ditugu gure harreman-sareko erakundeekin eta elkarteekin:

- Belén Larrión (Haurrak Babesteko eta Gizarteratzeko zuzendari nagusia);
- Eneko Goia (Donostiako alkatea);
- Ane Oyarbide (Donostiako Udaleko Gazteria Saileko zinegotzia);
- Aitziber San Román (Donostiako Udaleko Gizarte Ekintzako zinegotzia);
- Jorge Arevalo (Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako sailburuordea);
- Sareginez (Gipuzkoako boluntarioak dituzten gizarte-erakundeen sarea);
- Xuban Zubiria (EGK-ko partaidetza teknikaria).
- Elgoibarko Udala (gizarte-zerbitzuak eta Gazteria Saila).
- Azpeitiko Udala (gizarte-zerbitzuak).
- Irungo Udala.

Gainera, komunikabide eta sare sozial hauetan egon gara:

- Gipuzkoa Solidaria
 - <https://www.gipuzkoasolidarioa.info/fevent/6761/badabidebat-gipuzkoako-gazteen-emozioak-zaintzen/>
- Pedro Martin Barraión
 - <https://www.trendsmap.com/twitter/tweet/1404397111928573954>
- ARGIA
 - <https://www.argia.eus/albistea/itxaropenaren-telefonora-deitzen-duten-gazteen-kopurua-nabarmen-handitu-dela-eta-badabidebat-zerbitzua-jarri-dute-martxan>
- Gazteria Errenteria
 - <https://gazteria.errenteria.eus/2021/08/02/badabidebat-gipuzkoako-gazteen-ongizate-emozionala-zaintzea-helburu-duen-doako-zerbitzua/>
- BIBA ZUEK
 - <https://www.youtube.com/watch?v=km7aFoL39Zg>
 - <https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/biba-zuek/bideoak/osoa/8218896/badabidebat-gazteei-ahotsa-emateko-eta-ongizatea-zaintzeko-zerbitzua-da/>
- DIARIO VASCO
 - <https://www.diariovasco.com/gipuzkoa/badabidebat-nuevo-smartphone-20210705200847-nt.html>
- LA SER GIPUZKOA

- https://play.cadenaser.com/audio/ser_san_sebastian_hoyporhoysansebastian_20210622_122010_140000/?ssm=fb&fbclid=IwAR19ouDnY0U-oHmqyd1fqjVz7xPlaqYEr-4wdMehrXWTZdy307pEEmgf_c
- ONDA VASCA GIPUZKOA
 - https://www.ondavasca.com/badabidebat-gazteek-haien-arazoak-gainditzeko-bidelaguna/?utm_source=Facebook&fbclid=IwAROG_YiwnGLjimpjK9x2AMalx8hPkaKPIrI4R_qV-h1Z2AZE5slxt36HQyuc
- NOTICIAS DE GIPUZKOA
 - https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/actualidad/sociedad/2021/07/12/salud-mental-juventud-importa/1125995.html?fbclid=IwAR1NYd_D1eVi1xxgTinO16OgikTPdCECwWlaBxXVb0h1a6_Q2i1IXwC7ytc
- LA SER SAN SEBASTIAN 03/12/2021
 - https://play.cadenaser.com/audio/ser_san_sebastian_hoyporhoysansebastian_20211203_123101_140000/?ssm=whatsapp

4.GIT-AREN BARNE FUNTZIONAMENDUAREKIN LOTUTAKO JARDUERAK

4. 1. Boluntarioritza-taldea

Elkarreak erakundearen boluntarioritza-plan bat du 2020az geroztik, eta bertan, erakundearen eta boluntarioen eskubideak eta betebeharrak ez ezik, boluntarioen ibilbidea ere ezartzen da.

Hasierako prestakuntza boluntario berrientzat:

Aurten 4 laguneko lantaldeak jaso du hasierako prestakuntza, abuztuan 3 pertsona (2 emakume eta gizon 1) hasi ziren entzuteko txandak egiten eta urrian emakume bat.

Hasierako prestakuntza garatzeko orduan aldaketa bat egin dugu: alde teorikoaren azken fasea eta hainbat urteko esperientzia duten boluntarioei aktiboki entzuteko behaketa-praktikak konbinatu ditugu. Aldaketa hori oso modu positiboan baloratu da.


Boluntarioritzaren etengabeko prestakuntza:

Aurten, boluntarioen etengabeko prestakuntza-plana gai hauetan zentratu da: suizidioaren prebentzioa, diagnostiko konplikatuak jaso duten pertsonen arreta ematea, antsietate-egoerak maneiatzeko erlaxazio-teknikak, jarrera positiboak nola sortu eta, azken finean, kudeaketa emozionalari buruzko 15 orduko ikastaro bat (urritik abendura).

Era berean, UPV/EHUK suizidioari eta beste gai interesgarri batzuei buruz (erresilientzia) antolatutako udako ikastaro batzuen berri eman da eta dokumentazioa aurkeztu da. Horrez gain, Osasun Humanizaziorako Zentroak boluntario bati antolatutako laguntzari buruzko sakontzeko ikastaro bat eskaini da. Boluntario horrek bere entzuteko txandari aurre egiteko tresna gehiago izatea eskatu zigun. Material hori guztia gainerako boluntarioritza-taldeek irakurri eta landu ahal izan dute, eta, gainera, urte hauetan guztietan egin ditugun prestakuntza guztietarako esteka zuzena dute.

Gure boluntarioei urte amaieran egindako inkesta batean, jasotako prestakuntza guztiak oso modu positiboan baloratu dituzte.

¿Sientes que aprendes en las formaciones? ¿Son valiosas para ti?
19 respuestas



Boluntariotza zaintzea (espazio psikoemozionala)

Beti bezala, eta agian une honetan premia handiagoarekin, talde teknikoan gure boluntarioen ongizate emozionalari adi egon gara. Entzute eta aireztapen emozionaleko beharrei erantzuna emanez, eta batzuetan, beren txandak urruntzeko aukera emanez, baita atsedenaldi bat hartzeko aukera ere.

Etengabe, boluntarioek hala eskatzen dutelako, edota talde teknikoak beharrezkotzat jotzen duelako, elkarrizketak izaten dira telefono bidezko arretarekin lotutako zalantzak edo zailtasunak lantzeko.


Urtean zehar taldeko pertsonen % 40k (n = 12) gutxienez behin erabili du baliabide hori. Topaketa horietan, batez ere, artatu duten dei partikular batekin lotutako gaiak jorratu dira, baina, kasu batzuetan, haien ongizate psikoemozionalean eragina izan dezaketen gai pertsonalak ere jorratu ditugu.

Prestakuntzen atalean esan dugunez, 2021ean, aurreko urtean bezala, boluntarioak online inkesta anonimo baten bidez baloratzeko eskatu diogu taldeari. 21 boluntarioek parte hartu dugu, hau da, taldearen % 77,8k. Gaur egun ez dakigu zergatik 6 pertsonak ez dioten erantzun inkesta horri.

Hauek izan dira galderak eta erantzunak, eta balorazio ona egin da boluntarioen gogobetetze-mailari buruz eta talde teknikoaren arretari eta jarraipenari buruz. Erantzun kopurua: 21.


¿Cómo te sientes haciendo tu labor de voluntariado en del TEG?

19 respuestas



¿Cómo evaluarías la atención recibida por parte del equipo técnico (Maribel y Maite) para realizar la labor en el TEG?

19 respuestas



5. HERRITARREI ZUZENDUTAKO JARDUERAK

5.1. Sentsibilizazio-jarduerak

- Standa Errenteriako Elkarteen Azokan:

Sareginez sarearen barruan, urriaren 2ko goizean, larunbata, boluntariotza azoka antolatu eta parte hartu genuen, gure erakundea Errenteriako herritarrei ezagutarazteko, material informatiboaren bidez.

– Entzute Nazioarteko Eguna (Azaroak 15)

Urtero bezala, entzute aktiboari eta horren garrantziari buruzko sentsibilizazioa egiten saiatzen gara. DBUSen laguntzari esker, 150 kartel jarri ahal izan genituen Donostiako autobusetan, entzute aktiboaren eta elkarte gisa egiten dugun lanaren garrantziaz jabetzeko..



5.2. Ezagutzaren sentsibilizazioa

— “Bakardadea eta gizarte-bazterketako arriskuan edo arriskuan dauden pertsonak” azterlanari buruzko artikulua egitea.

GITak, Ainara Arnosorekin batera, bakardadeari eta gizarte-bazterketako arriskuan edo/eta egoeran dauden pertsonen buruz 2019an hasi genuen azterlanari buruzko artikulua egin du. Artikulu hau SIISen argitaratu da, baita nazioarteko hainbat aldizkaritan ere.

- Tolosako adineko emakumeen aurkako indarkeriei buruz ONEKAK antolatutako jardunaldian parte hartzea: “Adineko Emakumeen aurkako indarkeriak”

Abenduaren 9an, txosten bat egin zen problematika horrekin aztertzen ari garen kasuei buruz, nabarmen handitzen ari baitira, bai eta gaiari buruzko ondorio batzuk ere.



5.3. Beste erakunde batzuekin elkarlanean burututako proiektuak

- **Auzotu:**

Saiaz eskualdearekin, Deustuko Unibertsitatearekin eta Donostiako Udalarekin batera, Etorkizuna Eraikiz deialdiak finantzatutako proiektu hau gidatzen ari gara. Pandemian zehar gertatu diren hurbiltasun eta elkarrekikotasun harremanak ezagutu nahi dira, bai aurrez aurrekoak, bai tresna digital edo telefonikoen bidezkoak, funtsezko pieza izaten ari baitira hauskortasun, zaugarritasun edo larrialdi egoeran dauden pertsonen laguntzeko.

GITetik diseinuaren zatia eta herritarren parte-hartzearen zatia babesten ari gara, talde eragileetako bat babestuz, Amarako esku-hartze komunitarioaren pisua eramango duena.

https://www.youtube.com/watch?v=36f3IBI6j_w

2022an proiektu hau babesten jarraituko dugu Amara auzoan.

- **Gipuzkoako estrategia bakardadeen aurrean. HARIAK (Adinberri, Gipuzkoako Foru Aldundia):**

Hasierako talde eragilea eta hedatua osatzen dugu; izan ere, 2021ean parte hartzeko eta lurraldeka lan egiteko prozesu bat abian jarri da, Gipuzkoan adineko pertsonengan bakardadearen erronkari aurre egiteko eta Gizarte eta komunitate loturak — batez ere belaunaldien artekoak — indartzeko estrategia kolektiboki eraikitzeko.



- **Postalak 2020/Postales sonoras:**

2021ean Postalak 2020 proiektuan jarraitu dugu, Tabakalerarekin, Emaus Fundazioarekin eta Kutxa Kultur Fundazioarekin batera. 2020an sortu zen, bi helbururekin: 1) pandemiaren garai honetan lagun ditugun emozioak partekatzeko eta nola sentitzen garen hausnartzeko gonbita egitea.

Proiektua web orri honetan azaltzen da <http://2020postalak.eus/es/>

Gure parte-hartzea izan zen programen diseinuan, saioetan profil eta behar desberdinak gehitzeko harremanetan, podcastak gure sareen bidez zabaltzen eta podcastean parte hartzen “erresilientziatik laguntzeari buruz” hitz egiten, 8.atalean.



5.4. Gipuzkoako erakunde eta elkarteekin topaketak

Bilerak Gipuzkoako hainbat udalekin: 2021ean gizarte-zerbitzuetako hainbat sailekin bildu gara nahi ez dugun bakardadearen arazolari heltzeko. Zumarragari eta Errenteriari gure zerbitzuak ezagutarazteko aukera eskaini zitzaien, bai eta entzunaldi eta laguntza emozionalerako gune bat eskaintzeko beharrezkotzat jotzen dituzten pertsonak bideratzeko ere.

TKNIKA: Tknikarekin eta Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako Sailarekin harremanetan jarraitu dugu elkarlanean jarraitzeko. 2022an BadaBideBat zerbitzu berriarekin zerikusia duten laguntzekin gauzatuko da, baita ikasleen problematikekin (antsietatea, loaren nahasmenduak, ideia suizidak) zerikusia duten gida batzuei buruzko orientabideekin ere.

SAREGINEZ: Boluntariotza-erakundeen sareko kide izaten jarraitzen dugu. Sare horretan, hilerro, modu aktiboan parte hartzen dugu bileretan, eta boluntariotzaren lanari buruz lan egiteko eta sensibilizatzeko aprobetxatzen dugu, bai erakunde-mailan, bai gizartean. Gainera, urtean zehar hainbat azoka antolatzen parte hartu dugu, gure erakundeetako boluntariotzari buruzko informazioa emateko:

- Urriak 28 UPV-EHUn,
- Urriak 2 Errenterian
- Abenduak 3, ostirala, “Boluntarioen Eguna” ospatzeko



EMAKTIVA: EMAKITIVArekin izandako harremanak zerikusia du gure zerbitzuko emakumeak EMAKITIVARA bideratzearekin, kanalen bidez eta horretarako behar diren izapideei jarraituz. Aurten ere hainbat emakume bideratu ditugu zerbitzura.

NAGUSILAN: Erakunde honek hainbat kontsulta aurkeztu dizkigu, antsietate egoerekin eta dei batean horiei aurre egiteko tresna posibleekin lotuta.

5.5. Hitzarmenak

Aurten lankidetza-hitzarmenen urtea izan dela esan dezakegu; izan ere, beharrezkoa ikusi dugu aliantzak berretsi eta formalizatzea eta sinergia berriak bultzatzea, artatzen ditugun pertsonen kalitatezko zerbitzuak eskaintzen jarraitzeko, bai eta sareko lan bat ezartzea ere:

- GIPIZKOAKO ZENDAGAGIGILEEN ELKARGO OFIZIALA:

Martxoan, lankidetza-hitzarmen bat egin eta sinatu zen. Hitzarmen horren helburu nagusiak honako hauek dira: Gipuzkoako farmazia guztietan GITaren lana zabaltzea eta, aldi berean, GITera deitzen duten pertsonen Gipuzkoan farmaziek ematen dituzten zerbitzuen berri eman ahal izatea.



- GIPIZKOAKO ERIZAINNTZA ELKARGO OFIZIALA:

2021eko uztailean hitzarmena sinatu genuen erakunde honekin. Hitzarmenaren funtsezko helburuak honako hauek dira, besteak beste: GITaren zerbitzuak ezagutaraztea eta Gipuzkoako elkargokideen artean boluntarioritza sustatzea.



- **HURKOA Fundazioa:** Hitzarmen honen helburua erakunde horren Hauskor programan (hauskortasun egoeran dauden pertsonak) parte hartu ahal izatea eta egoera horretan dauden pertsonak identifikatu ahal izatea, bi erakundeen zerbitzu guztiak baliatu ahal izan ditzaten.



- **ADINKIDE:** Lankidetzeta-hitzarmena sinatu da otsailean, desiratzen ez diren bakardade-sentimenduak adierazten dituzten adinekoen kolektibo handiago batera iristeko, elkarri egin dakizkiokeen bideratzeen bidez. Hitzarmen hau honako hauekin gauzatzen da: laguntza psikologikorako bideratutako 5 pertsonarekin (4 emakume eta gizon 1); eta

Adinkiden laguntza emozional presentzialerako eta boluntariorarako 3 pertsonarekin (2 emakume eta gizon 1).

<https://www.diariovasco.com/gipuzkoa/acuerdo-adinkide-telefono-20210326001020-ntvo.html>

- **CÁRITAS GIPUZKOA:** Urtero bezala, erakunde horrekiko hitzarmena berritu da, pisuaren lagapena formalizatzeko, Gipuzkoako Itxaropenaren Telefonoaren lanak egiteko.

- **TECNUN:** 2021ean Nafarroako Unibertsitatearekin elkarlanean jarraitzen dugu Gipuzkoako gizarte-baliabideei buruzko datu-base bat sortzeko proiektuan. Gainera, BadaBideBateko ekitaldian lagundu digute, bai komunikazio eta hedapen alderdian, bai ekitaldiaren bideo bat grabatu eta editatzeko garaian ere.

5.6. Praktikak burutzeko hitzarmenak

GITa Gipuzkoako hainbat unibertsitatetako eta Lanbide Heziketako Graduetako ikasleentzako praktika zentroa izaten jarraitzen du.

UPV/EHUko Psikologia Fakultatea: praktika zentroa izan gara psikologiako ikasle batentzat otsailetik ekainera bitartean.

DEUSTOko Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea uztailaren erdialdean jarri ziren harremanetan GITarekin, Gizarte Laneko Graduoko ikasleek GITan praktikak egiteko aukera emateko. Urriaren erdialdean hasi eta 2022ko maiatzean amaituko da.

UNEDek kanpoko tutore gisa lan egiten dugu, ikasle bati gure elkartean Psikologiako Practicumaren garapenaren berezko jarduerak erraztuz. Ikasleak 180-210 ordu ditu praktikak egiteko.

Laneko arriskuen prebentzioari buruzko **Lanbide Heziketako Gradurako EASOren Politeknikoak** azaroan eta abenduan praktiketako pertsona bat izatea proposatu zigun, guztira 200 orduko praktikaldiarekin.

6. GIT-aren DIFUSIOA

2021ean, GITtik **bideo korporatibo** bat egin dugu, sare sozialetan eta whatsapp bidez zabaldu ahal izateko.

<https://vimeo.com/543020989> bideo Korporatiboa

<https://vimeo.com/543020989> bideo Korporatiboa motza

Gainera, GITaren paperezko materialak banatzen jarraitu dugu: aurkezpen txartela eta liburuxka korporatiboa.

Aurten, **Erlauntza Proiektua** osatzen duten Donostiako 6 auzotako diziplina anitzeko taldeen artean (Egia, Gros, Intxaurre, Parte Zaharra, Amara, Bidebieta) GIT zabaldu da. Hiriko hainbat auzotan abian jarritako ekimena da, auzoetan lan egiten duten profesionalak beren lana hobeto egin dezaten, elkarrenganako konfiantza handiko harremanean oinarrituta. Diziplina, ikuspegi eta erakunde publiko eta pribatuetako profesionalak, auzoan bizi diren pertsonen bizi-kalitatea mantentzeko edota berreskuratzeko helburu komuna dutenak.

Beste batzuk:

Ohikoa denez, Gipuzkoako Boluntariotzaren Gida (Gizalde), Gipuzkoa Solidarioa, www.telesgi.org eta Diario Vasco egunkariko telefono interesgarrien eta urgentziakoen zerrendan agertzen da GITari buruzko informazioa eta gure zerbitzuekin harremanetan jartzeko modua. Donostiako osasunerako aktiboen eta baliabide komunitarioen mapan ere agertzen gara.

Gainera, 2011. urteaz geroztik, Osakidetzaren Zentro eta Zerbitzu Sanitarioen Gidan sartu gaituzte, baita Donostia Turismoaren Erregistroan, osasuna sustatzeko Donostia.org

webgunean jarri duten mapan, Donostiako Udaleko Gazteria Sailaren baliabideen gidan eta Goiener Sarearen sarean ere.

Facebook:

Facebooken jarraitzen dugu. Gaur egun 851 jarraitzaile ditugu.

7. GITAK HAINBAT ERAKUNDE PUBLIKOREKIN DITUEN BETEBEHAR ETA KONPROMISOEI LOTUTAKO TOPAKETA ETA BILERETAN PARTE HARTZEA

Donostiako Udaleko Gizarte Ekintzako Kontseilu Sektorialean sartzea

Sektore Kontseiluaren helburua hirian dauden partaidetza egitura eta erakundeen arteko topagunea izatea da, elkarrekin lan egin ahal izateko Donostiako herritarren bizi kalitatea eta Gizarte kohesioa hobetzeko. Aurten, Kontseilu horrek antolatutako 2 bileratan parte hartu dugu.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuak anotlatutako jardueretan parte hartzea

- Gipuzkoako Foru Aldundiak Elkar-Ekinen antolatutako bileretan parte hartu dugu, eta GITak euskararen erabilerarekin duen harremana aztertu dugu, bai barne lanean zein besteekin harremantzeko garaian. 2 bilera eta jardunaldi batean egon gara.
- Sailak deitutako bileretara joan gara sareko arduradun gisa ditugun eginkizunekin lotutako neurri berrien berri emateko.

8. BESTE BARNE JARDUERA BATZUK

- «Laneko arriskuen prebentziorako plana egitea:

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Lanbide Heziketako Graduoko praktiketako ikasle baten lanari esker, gure Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana berrikusi ahal izan dugu eta oso hobekuntza garrantzitsuak sartu ahal izan ditugu (adibidez, laneko jazarpena

prebenitzeko eta horri aurre egiteko protokolo bat egitea). Planari buruzko informazioa boluntario guztiei eta langileei helarazi zaie, prestakuntza-saio baten bidez.

9. GIT-AREN ZERBITZUAK BALORATZEKO ERABILITAKO EBALUAZIO ADIERAZLEEI BURUZKO DATUAK

Atal honi ekiteko, 2021eko zerbitzuen erabilerari buruzko taula bat egin dugu laburpen gisa.

Telefono bidezko arreta zerbitzua (900 840 845)

2021eko DATU ADIERAZLEAK	GUZTIRA	EMAKUMEZ KOAK	GIZONEZKOAK
900 840 845 LINEAN ERANTZUNDAKO DEIAK	2252	1135 (%50,4)	1117 (%49,6)
900 840 845-AN <u>LEHEN ALDIZ</u> ARTATUTAKO PERTSONAK	197	140 (%71,1)	57 (%28,9)
MINUTU KOPURUA GUZTIRA	52.509	29.620	22.553
DEI BAKOITZEKO MINUTUEN BATAZ BESTEKOA	23,3	26,1	20,2
JASOTAKO E-POSTA KOPURUA	13	11	2

Aholkularitza psikologiko zerbitzua

2021eko DATU ADIERAZLEAK	GUZTIRA
ARTATUTAKO PERTSONA KOPURUA	41
GIZONEZKO ETA EMAKUMEZKO KOPURUA	33 emakumezko (%80,5) eta 8 gizonezko (%19,5)
SESIO KOPURUA	331
AURREZ AURREKO ETA TELEFONO BIDEZKO SAIOEN KOPURUA	255 aurrez aurrekoak (%77) 76 telefono bidez (%23)
SESIOEN BATAZ BESTEKOA PERTSONAKO (aurrez aurrekoak zein telefono bidezkoak)	8

BADABIDEBAT Gipuzkoako gazteei laguntza emozionala emateko zerbitzua

2021eko DATU ADIERAZLEAK*	GUZTIRA
BADABIDEBATEKIN KONTAKTATU DUTEN PERTSONA KOPURUA - Chat = 17 - E-posta = 4 - 900 840 835 = 5 - Whatsapp = 1	27
ARTATUTAKO PERTSONA KOPURUA: - Chat = 9 - E-posta = 4 - 900 840 835 = 5 - Whatsapp = 1	19 %73,7 emakumezkoak %15,8 gizonezkoak %10,5 ez dakigu

(*) zerbitzua 2021eko ekainaren 14ean jarri zen martxan

10.1. ARRETEKIN DATUAK

Une honetan 19 gazteri eman diegu arreta zerbitzuan, eta horietako 3 aholkularitza psikologikoa jasotzen ari dira (2 neska eta mutil 1), eta beste neska bati urtarrilerako orientazioa eman zaio.

Gainera 2 pertsonaren jarraipena egiten ari gara.

11. ESKER ONAK

GIZA TALDEA

Borondatezko Zuzendaritza Batzordea

Entzuketa boluntarioen taldea

GIT-ean konfiatuz deitzen duten pertsonak

LAGUNTZA EKONOMIKOAK

Gipuzkoako Foru Aldundia. Gizarte Politiketako Saila

Kutxa Fundazioa

Donostiako Udala

Eusko Jaurlaritza

Udalak:

Aretxabaleta, Arrasate, Astigarraga, Billabona, Eibar, Elgoibar, Errenteria,
Eskoriatza, Hernani, Hondaribia, Irún, Lezo, Oñati, Orio, Urretxu, Zarautz
eta Zumarraga.

Enpresak (IRIZAR eta Euskaltel)

Bazkideak

Unean uneko dohaintzak

***Eskerrik asko guztioi Gipuzkoako Itzaropen Telefonoan sinistu
eta zerbitzuak egunez egun funtzionatzen jarraitezea posible
egiteagatik!***